

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) bere Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemaren ziurtapena lortu du

Nextel S.A. Ingeniaritza Telematikoak laguntza ematen dio EJIEri ISO 27001 arauaren bidez ziurtatutako ISKS ezartzeko

Bilbo, 2008ko urtarrilaren 26a.- EJIEk (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak) Nextel S.A., Ingeniaritza Telematikoak aukeratu du ISO/IEC 27001 arauaren bidez ziurtatutako ISKS ezartzeko.

Erakunde batek informazioaren segurtasunaren arriskuak ezagutu behar ditu, bere egin, kudeatu, eta arriskuak gutxitzen saiatu behar du, eta hori guztia modu dokumentatuan, sistematikoan, egituratuan, errepikagarrian, eraginkorrean, eta erakundearen eta bere inguruan gertatzen diren aldaketetara egokituta. Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema baten helburua guzti hori bermatzea da. **ISO/IEC 27001** arau egiaztagarriak beharrezko betekizunak zehazten ditu Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat (ISKS) zehaztu, ezarri, mantendu eta hobetzeko, "Deming-en Ziklo" ezagunaren arabera: PDCA – Plan, Do, Check, Act hitzen akronimoa (Planifikatu, Egin, Egiaztatu, Doitu).

EJIE orain dela 27 urte sortu zen, eta eskarmentu handia dauka bai kudeaketa-sistemetan, bai bere aktiboen eta bere bezeroen informazioaren segurtasuna bermatzeko neurrietan. Horrek bidea eman du kalitatea kudeatzeko sistemaren eskakizunak Informazioaren Segurtasuna kudeatzeko Sistemara hedatzeko. Behin ISKS ezarrita, bermatuta gelditzen da segurtasuna, bai bere negozio-prozesuetan, bai bere bezeroei emandako zerbitzuetan. Hori guztia arau horrek ematen duen nazioarteko aitortpenak bermatuta.

"Gaur egun, sistema honekin ezarritako kontrolak sendotzen ari gara, eta Nextel S.A. enpresak, oso gertutik eta modu malguan, laguntza handia ematen digu engranajeak ondo mantentzen direla ziurtatzeko" dio Asier Ares Ikaranekek, EJIEko Segurtasun eta Kalitateko arduradunak.

Bi enpresen arteko elkarlanari esker arrakastatsua izan den proiektuak planifikatutako hiru faseak gainditu ditu (aldeaz aurreko azterketa, arriskuen azterketa, eta sistemaren garapena), eta ziurtapena lortu da. ISO 27001 arauaren bidezko ziurtapen honek barne-baliabideen optimizazioa errazten du, bezeroen konfiantza finkatzea ahalbidetzen du, emandako zerbitzuak etengabe hobetzea bermatzen du, eta ezarritako sistemari nazioarteko aitortpena ematen dio.

José Ramón Conchak, Nextel S.A.-ren IT aholkulari eta proiektuaren arduradunak, honela dio: "EJIEn Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema ezartzeak argi uzten du erakundearen konpromisoa bere bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzuak etengabe hobetzeko"

EJIEk proiektu honetarako konfiantza osoa du Nextel S.A. enpresarekin, arauari buruz daukan jakintza-maila zehatzagatik, eta arauarekin duen konpromisoagatik, bera baita estatuan, nazioartean aitortuta dagoen segurtasun-estandar honen arabera, Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemarako Ziurtapena daukan lehen aholkularitza-enpresa.

Egun, Nextel S.A.-ren aholkulari-taldeak laguntza osoa ematen dio EJIEri, ezarritako sistema hobetzen jarraitzeko.

Nextel S.A.-retzat proiektu hau esperientzia garrantzitsua da segurtasunaren inguruko IT aholkularitza-arloan, eta administrazio publikoan eta sektore estrategikoetan dituen proiektu handien eskutik bere etorkizuna garatzen ari da.